

## CANVAS METODOA

- **Balio proposamena:**

Ingurumena zaintzen dugu gure produktua ekoizteko orduan, ingurumenarekiko konpromisoa bultzatzeko helburuarekin. Gaur egun dagoen egoera aztertuta, xaboi naturalak egitea erabaki dugu, olio birziklatuarekin, ingurumena gutxien kaltetzen duen metodoa erabiliz. Kalitate oneko xaboia salduko dugu, kalitate-prezio erlazio ona duena.

Landare estraktu eta olio mota ezberdinak nahastuz bezeroaren azalera hoberen egokitzen diren jaboiak ekoitziko ditugu, PH neutrodunak. Azal desberdinetara moldatzen diren produktuak eskainiko ditugu, bezero guztien beharretara egokitzeko. Xaboi mota horien artean, umeen azalentzat aloe vera estraktua erabili dugu; nerabeentzako erromeroa, mosqueta arrosa azaleko markak kentzeko, hinojoa, zelulitisa desagerrarazteko...

Kolore eta neurri desberdinetako produktuak eskaintzen ditugu, esate baterako, 20, 100, 200 eta 1000 gramokoak. Horretaz gain, produktu pertsonalizatuak ekoizten ditugu. ezkontza opariak, hoteletarako etab.

Hasiera batean xaboi naturalak soilik egingo ditugu, baina etorkizun batean aurreikusten dugu kosmetika naturaleko gaiak ere salduko ditugula, gizarteak gero eta eskari handiagoa baitu horrelako produktu ekologikoetan.

- **Merkatuaren segmentazioa**

17 urtetik gorako gizon-emakumeei zuzenduta dago gure produktua, ingurumena eta norberaren ongizatea zaindu nahi dutenei. Gure ekoizpen prozesua ingurumena errespetatzen du, baita gure banaketa sistema ere. Xaboa, gainera, olio birziklatua du osagai nagusi gisa, beste osagai natural eta ekologikoekin batera.

Horrez gain, azal mota ezberdinetarako erabilgarri izango da gure xaboa, osagai natural ezberdinak nahasten ditugulako, pertsona bakoitzari eta bere beharrei moldatzeko. Adibidez, umeentzat aloe vera erabiltzen dugu, haien azal sentikorra babesteko. Nerabeen azalantzako, bestalde, erromeroa bezalako landareen estraktua erabiltzea erabaki dugu, akne bezalako arazoak ezabatzeko. Azaleko bestelako markak ezabatzeko, berriz, mosqueta arrosa erabiltzen dugu.

- **Banaketa eta komunikazio kanalak**

Gure xaboiak bezeroei helarazteko online kanala erabiliko dugu batik bat. Komunikazio kanal bezala sare sozialak erabiliko ditugu gaur egun asko erabiltzen baitira, esate baterako, Instagram-a, Facebook-a, Pinterest etab. Web orri bat egingo dugu baita, bertan gure produktuen zerrenda eta xaboi bakoitzaren onurak azalduko ditugu eta honen bitartez gure produktuak erosteko aukera eskaintzen diegu gure bezeroei. Aurrerago blog bat egitea aurreikusten dugu, bertan produktu natural eta ekologikoei buruz informazioa eskainiz.

Gure xaboiak belar-denda edo denda naturaletan saltzea pentsatu dugu, bertan gure produktuak ezagutarazteko aukera gehiago izango dugulakoan. Hainbat merkatuetara joateko asmoa dugu, bertan gure produktuak nola egiten ditugun erakusteko asmoz. Xaboiak gure bezeroei eramateko kotxe elektrikoa erabiliko dugu ingurumenari ahalik eta kalte gutxien egiteko. Gure bezeroa 3 kilometro baino gutxiagora badago, bizikleta erabiliko dugu.

- **Bezeroekiko harremanak**

Gaur egun gure produktua ezagutarazteko eta bezeroen beharrei hobeto erantzun ahal izateko sare sozialak oso garrantzitsuak dira.

Nahiz eta sare sozial ezberdin asko egon, gazte gehienek daukate Instagram edo Twitter konturen bat, beraz hauetan argazki bat igotzean edo publizitatea egitean gure produktua gazteen artean zabaltzea lortuko dugu.

Gure enpresa jakitera emateko noizbehinka zozketaren bat egitea erabaki dugu gure sare sozialetan, honek bezero gehiago erakarriko dituela uste dugulako. Baina zozketak egiteaz gain, oparitxoak ere egingo ditugu; urtean 100 euroko erosketak egin dutenei edota urtebetetze opariak eginez.

Xaboi pertsonalizatuak ere eskaintzen ditugu, adibidez hotelentzat xaboiak hotelaren izenarekin, kirol elkarteentzat xaboi bereziak edo ezkontza opariak.

Gainera gure produktua ezagutarazteko artisau azoketan gure xaboiak nola egiten dugun erakutsiko diegu bezeroei.

- **Diru-sarrerak**

Diru-sarrerei dagokionez, hainbat modutan ordaindu ahal izango dute bezeroek; debitua, kreditua edo eskudirutan.

Xaboiak web orrian salduko ditugunez, bezeroek kreditu txartelaz edo PayPal-en bidez ordaindu ahal dute, beraiek nahi duten moduan.

Sare sozialetan argazkiak, bideoak... igoko ditugunez, gurekin kontaktuan jarri ahal izango dira e-post bidez edo zuzenean transferentzia bidez ordaindu dezakete. Dendei, hotelei... salduko dizkiegu xaboiak, diru sarrerak jasotzeko beste bide bat.

- **Funtsezko baliabideak**

Lehengaiari dagokionez, herrien udaletxeekin kontaktuan jartzea dugu pentsatuta, birziklatze-erabilitatutara botatzen den erabilitako olioak (oliba olioak nahiz bestelakoak) gure enpresara bideratzeko. Bestelako osagai guztiak hornitzaile %100 ekologikoengan eskuratzeaz ziurtatu gara. Sosa kaustikoa, beharrezko olio ez-birziklatua eta lore eta bestelakoen estraktuak dira olioaz gain beharrezko osagaiak.

Xaboiak inguratzeko bilgarriak, poltsak nahiz etiketak material birziklagarriez erabiltuko ditugu, eraldatzeko lehengaiak hornitzaile ekologikoari erosi. Honez gain, ez dugu plastikoa erabiliko, paper berezia baizik. Xaboiak erabiltzeko ez ditugu makinak erabiliko, eskuz egingo ditugu. Lehengo xaboiak erabiltzeko hilabete batzuk itxarongo ditugu, xaboiak saltzeko prest egon arte, eta bitartean erabiltzen jarraituko dugu.

Sare sozialak eramateko tresna bezala gure telefono pertsonalak erabiliko ditugu, web orria sortu eta osatzeko ordenagailu bat erosi beharko dugu. Garraioaren aldetik, auto elektrikoa erosi dugu, ingurumena errespetatzen duena.

- **Funtsezko jarduerak**

Produktuak ekoizteko, lehendabizi baimenak eskuratu behar ditugu. PH neutrodun xaboiak ekoiztiko ditugu modu naturalean. Bezeroak bi modu izango ditu gure produktua erosteko; salmenta puntuetara joatea edo gure web orrian erostea. Web-orrian gainera gure xaboi guztien zerrenda eta hauen ezaugarri nagusiak eskuragarri izango dituzte.

Xaboiak ezagutzera emateko komertzialak gure produktuen eskaintza egingo die inguruko hotel eta belar-dendei.

Publizitateari dagokionez, gure produktuen informazioa Interneten jarriko dugu eta baita gaur egun asko erabiltzen diren sare sozialetan ere. Honetaz gain inguruko herrietako merkatuetan gure xaboiaren demostrazioak egingo ditugu eta xaboiak nola elaboratzen dugun azaldu ere.

- **Kostu egitura**

Hasieran inbertsio bat egin beharko dugu proiektuarekin hasteko. Xaboiak ekoizteko makineria eta tresneria erosi behar dugu. Auto elektrikoa erostea erabaki dugu, ingurumenarekin bat eginez. Kostu baxuenekoa erabaki dugu erostea (Citroen C-Zero), 19.690€ balio duena, hasiera batean sarrerek ez ditugulako edukiko. Bestalde, web orria sortzeko ordenagailua erosiko dugu ere; 1.000€-ko ordainketa bakarra eskatzen duena.

Kostu finkoetan langileen kostuak, lau langile izango gara denak bazkideak kooperatiba bat garelako. Bakoitzaren soldata 1000€ izango da.

Administrazio lanak gestoria baten esku utziko ditugu eta hauen kostua ere finkoa izango da.

Lokal bat alokatuko dugu gure produktua ekoizteko eta honen alokairua 1000€ izango da hilero. Kostu hau nahiz lokalaren aseguruak kostu finkoak izango dira. Hornidurak (Telefonoa, Wi-Fia....) ere kostu finkoen barruan sartuko ditugu.

Kostu aldakorren artean, lehengaiak: sosa, esentzia naturalak(aloe vera, erromeroa...) eta eraikinaren elektrizitatea.



- **Funtsezko sozietateak**

Lehenengoz, Euskal Herriko udaletxeekin kontaktuan jartzea pentsatu dugu, gure osagai nagusia, birziklatutako olioak, lortzeko. Bestalde, bigarren mailako osagaiak lortzeko denda ekologikoekin hitz egitea erabaki dugu, haiei lehengaiak erosteko asmoz. Gure produktua saltzeko, gainera, inguruko belar-dendekin kontaktuan jarriko gara, haien dendetan gure produktuak saltzeko, denda propioa ez dugulako edukiko.

Urte batzuk beranduago, enpresa ondo badao, kosmetika ekologikoa ekoizten duten denda fisikoekin hitz egitea nahi dugu, han gure kosmetika produktuak saltzeko. Sare sozialetan influentzia handia duen jendearekin hitz egitea asko lagunduko zuen, gure produktuen zozketak egiten badituzte publizitate asko irabaziko genukeelako.